



Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

## Kontu-hartzailearen txostena

Udal honetako Kontu-hartzaileak, 2023ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

### TXOSTENA


Udalbatzarrak 2022ko abenduaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2023ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	39.656.745,64
Kreditu gaikuntzak:.....	457.564,28
Kreditu txertaketak:.....	5.483.327,35
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu gehigarriak:.....	3.181.204,05
Behin betiko aurrekontua:.....	48.778.841,32

### 1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

KAPITULUA	2023 EKITALDIA			2022 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	12.974.155,27	12.381.402,59	95,43	12.289.729,52	12.014.786,78	97,76
2 - Ondasunak eta zerbitzuak	14.981.573,60	13.331.309,88	88,98	13.819.958,70	12.332.815,26	89,24
3 - Interesak	25.000,00	13.180,92	52,72	2.100,00	0,00	0,00
4 - Transferentzia arruntak	5.516.582,13	4.809.352,65	87,18	5.403.814,39	4.814.434,40	89,09
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	117.187,07	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsioak	12.513.980,15	5.598.337,76	44,74	15.783.526,31	8.235.808,86	52,18
7 - Kapital transferentziak	2.560.363,10	1.006.735,19	39,32	2.020.528,41	1.297.317,90	64,21
8 - Finantz aktiboen aldaketak	90.000,00	24.434,39	27,15	117.200,00	52.713,27	44,98
9 - Finantz pasiboen aldaketak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.778.841,32</b>	<b>37.164.753,38</b>	<b>76,19</b>	<b>49.436.857,33</b>	<b>38.747.876,47</b>	<b>78,38</b>

Datu hauen arabera ikusi daiteke gauzatze maila 2022. urtean baino baxuagoa izan dela, 2,19 puntu baxuagoa, baina exekuzio maila normala izan da. Kapitulu guztiek izan dute beherakada bat, 3. Kapituluak izan ezin. Kasu honetan, %52,72ko onartutako obligazioak izan dira (aurreko ekitaldian ez zen inolako obligaziorik onartu), denak ere banku eta kutxetako interesei dagokienak.

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0022

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

GAUZATZE FASEA	2023 EKITALDIA		2022 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN N %
Obligazio onartuak (O fasea)	5.598.337,76	44,74	8.235.808,86	52,18
Gastu erabiliak (D fasea)	7.532.708,43	60,19	11.622.510,61	73,64
Gastu baimenduak (A fasea)	7.688.151,50	61,44	12.383.681,29	78,46
Kredituak, guztira	12.513.980,15	100,00	15.783.526,31	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea A fasera, aurreikusita zeuden inbertsioen erdia baino gehiago iritsi direla, nahiz eta 2022. urteko ekitaldian baino 17,02 puntu gutxiago izan. Halaber, "O" fasera iritsitako zenbatekoa aurreko urteko portzentaia baino 13,45 puntu gutxiago izan da, %73,64tik %60,19ra pasatuz. Kontuan izan behar da 2023. urtea hauteskunde urtea izan dela eta gobernu aldaketa gauzatu dela Arrasaten, horrek dakarren ondorioekin.

6. kapituluko partidak aztertuz, beste hau izango litzateke deigarria:

- 1 0805.601.161.01.00 2022 Fibrozemento Garagartza: 147.953,86€ko behin betiko aurrekontu bat izanda, onartutako obligazioak 34.271,85€ izan dira (%23,16). 2022 urtetik datorren partida bat izanda (txertatu egin zen 2023ko aurrekontura) ezin da 2024ko ekitaldira txertatu.
- 1 0800.601.153.20.00 2023 Asfaltuak: 300.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





**Esp. kodea:** 2024RBAR0022  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

- 1 0800.624.441.00.00 2023 Autobus berria: 226.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.
- 1 0802.601.337.00.05 2023 Aprendices parke estalia: 100.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.
- 1 0802.601.337.00.06 2023 Santa Barbara natur haur parkea: 100.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.
- 1 1200.629.340.00.01 2023 Kiroldegi berriko proiektua: 600.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.
- 1 1200.629.342.00.00 2023 Atletismo pista aldatzea: 520.000 €ko behin betiko aurrekontu bat izanda, ez da ezer gauzatu. Posible litzateke aipatu zenbateko guztia, edota zati bat 2024ko aurrekontura txertatzea.

Aurreko paragrafoetan aipatutako txertaketak gauzatu ahal izango dira, beti ere diruzaintzako gerakinik balego.

Goiko paragrafoetan aipatutako txertaketak burutu ahal izango dirateke baldin eta diruzaintzako gerakina balego.

## 2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

KAPITULUA	2023 EKITALDIA			2022 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	12.381.402,59	12.376.909,24	99,96	12.014.786,78	12.012.991,81	99,99
2 - Ondasunak eta zerbitzuak	13.331.309,88	10.971.518,40	82,30	12.332.815,26	10.578.183,71	85,77
3 - Interesak	13.180,92	9.264,97	70,29	0,00	0,00	0,00
4 - Transferentzia arruntak	4.809.352,65	4.173.912,77	86,79	4.814.434,40	4.122.106,25	85,62
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsioak	5.598.337,76	3.953.430,34	70,62	8.235.808,86	7.511.078,85	91,20
7 - Kapital transferentziak	1.006.735,19	963.754,85	95,73	1.297.317,90	1.254.775,67	96,72
8 - Finantz aktiboen aldaketak	24.434,39	24.434,39	100,00	52.713,27	52.713,27	100,00
9 - Finantz pasiboen aldaketak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.164.753,38</b>	<b>32.473.224,96</b>	<b>87,38</b>	<b>38.747.876,47</b>	<b>35.531.849,56</b>	<b>91,70</b>

Oro har, ordainketak portzentai handi batean burutu dira, nahiz eta 2022ko ekitaldiarekin alderatuz 4,32 puntu jaitsi.

Adierazi behar da fallta diren ordainketa gehienak abenduko gastuei dagokiela. Gastu horiek itxiera epean onartzen dira eta abenduaren 31an ordaintzeke agertzen dira. Bestalde, hainbat dirulaguntzen zuriketak otsailan ere onartu dira, eta otsaila ez da itxiera epea. Dirulaguntzen tramitazio epeak aldatu beharko lirateke, urtean bertan zuriketak onartu eta espedienteak ixteko. Ordainketak aurreikusitako eritmoan egin dira. Ordainketen batez besteko epeak araudiak ezarritako epearen barruan izan dira, 1. Hiruhilekotik 4.era jaisten joan delarik.

### 3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarreren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

KAPITULUA	2023 EKITALDIA			2022 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Impuestos directos	6.805.000,00	7.301.857,42	107,30	6.931.000,00	6.964.778,44	100,49
2 - Impuestos indirectos	1.000.000,00	857.318,41	85,73	900.000,00	1.717.090,02	190,79
3 - Tasas y precios publicos	8.127.600,00	8.239.645,19	101,38	7.464.600,00	8.376.478,52	112,22
4 - Transferencias corrientes	19.614.741,50	19.894.964,37	101,43	18.951.403,91	19.879.878,32	104,90
5 - Ingresos patrimoniales	284.210,00	368.432,38	129,63	208.910,00	326.886,01	156,47
6 - Enajenaciones reales	1.751.100,00	156.158,57	8,92	1.751.100,00	170.013,91	9,71
7 - Transferencias de capital	2.441.658,42	2.609.045,11	106,86	627.815,05	2.457.039,91	391,36
8 - Variacion de activos financieros	8.754.531,40	25.724,39	0,29	11.022.028,37	52.713,27	0,48
9 - Variacion de pasivos financieros	0,00	0,00	0,00	1.580.000,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.778.841,32</b>	<b>39.453.145,84</b>	<b>80,88</b>	<b>49.436.857,33</b>	<b>39.944.878,40</b>	<b>80,80</b>

- 1. kapituluari dagokionez, behin betiko aurreikuspenak gaintitu egin dira, izan ere onartutako eskubideak %107,30 izan dira, 2022. urteko likidazioan baino %6,81 puntu gehiago.
- 2. kapituluari dagokionez, nahiz eta exekuzio maila altua izan (%85,73), sarrerak %44,93 jaitsi dira 2022ko datuekin alderatuz. Izan ere, 2022 ekitaldian DIKAR SCL enpresak izandako ICIO kitapenak eragin zuen, besteak beste, exekuzio mailaren gorakada, behin betiko aurreikuspenak ia bikoiztuz.
- 3. kapituluari dagokionez, berriz (tasas eta bestelako zergak) jaitsi egin dira onartutako eskubideak 2022ko datuekin alderatuz (10,84 puntu), baina 2023ko behin betiko aurreikuspenak 1,38 puntutan gaintitu dira. Bestalde, kapitulu honetan sartu da UFFFaren baitan 2023 urterako Aldi baterako grabamenak kontzeptupean Foru Aldundiak eginiko 208.198,30 €ko likidazioa. Zenbateko hori, eta Foru Aldundiaren irispidea jarraituz, 2023ko ekitaldira atxikitzen da (R fasea, hau da, onartutako eskubideak), eta ordainketa, berriz, 2024 urteko otsailak bukaeran gauzatuko da.

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



**Esp. kodea:** 2024RBAR0022  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

- 4. kapitulari dagokionez, kapitulu honetan UFFF-a sartzen da, eta 2023 urteko likidazioa aurreikuspenak baino 163.174,36 € altuagoa izan da. Goiko kasuan bezala, zenbateko hori 2023 aurrekontura egozten da, nahiz eta sarrera 2024ko otsailean gauzatu.
- 5. kapitulan nabarmentzeko da 2 0600.560.000.00.01 2023 Gordailuetako interesak partidak izandako exekuzioa. Behin betiko aurreikuspen batzuk izatetik 39.245 €ko eskubideak onartu dira (Banco de Sabadellen inposizio baten interesak).
- 6. kapitulari dagokionez 156.158,57 €ko eskubideak onartu dira. Kapitulu honetan aurreikusten ziren diru-sarrerak lursail bat besterentzeagatik (1.500.000, 00 €), hirigintza aprobetxamenduengatik (100.000,00 €) eta urbanizazio-kuotengatik (150.000,00) izan ziren. Horietatik soilik hirigintza aprobetxamenduengatik onartu dira eskubideak (124.452 €).
- 7. kapituluaren exekuzio maila ere oso altua izan da, behin betiko aurreikuspenak gaindituz. 2022 urtearekin alderatuz, ordea, gauzatze maila nabarmen jaitsi da (%391,36tik %106,86ra). Kontuan izan behar da aurreko ekitaldian hasiera batean aurreikusita ez zeuden eskubide batzuk onartu zirela, hala nola JAMERako NEXT GENERATION fondoak (1.708. 529,58 €), Eusko Jaurlaritzak Santa Teresa obrarako bideratutako zenbatekoa (382.682,90 €), eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bizikleten sarearen dirulaguntza (100.000,00 €). Horiek guztiek ekarri zuten gauzatze maila hain altua.
- 8. kapitulan gauzatze maila oso baxua egon da, 2022. urtearekin alderatuz (0,19 puntu gutxiago). Kapitulu honetan onartu diren eskubideak hauek izan dira: aurrerakinen itzulketak (23.224,39 €) eta fidantzen itzulketa epe laburrera (Kutxabankek Musakolako lokalaren alokairua gaztetxororako 2.500,00 €koa).

Oro har esan daiteke exekuzioaren portzentaia nahiko altua dela (9.kapituluaren exekuzio maila baxuak aurrekontu globalaren gauzatze maila jaisten badu ere). Hala ere aurreko urtean baino 0,08 puntu altuagoa izan da.

#### 4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

KAPITULUA	2023 EKITALDIA			2022 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Impuestos directos	7.301.857,42	6.962.278,65	95,35	6.964.778,44	6.711.866,60	96,37
2 - Impuestos indirectos	857.318,41	628.729,46	73,34	1.717.090,02	1.486.626,52	86,58
3 - Tasas y precios publicos	8.239.645,19	7.640.733,23	92,73	8.376.478,52	8.018.589,46	95,73
4 - Transferencias corrientes	19.894.964,37	19.193.654,21	96,47	19.879.878,32	18.823.481,48	94,69
5 - Ingresos patrimoniales	368.432,38	363.492,24	98,66	326.886,01	167.606,80	51,27
6 - Enajenaciones reales	156.158,57	112.291,74	71,91	170.013,91	147.147,67	86,55
7 - Transferencias de capital	2.609.045,11	1.889.177,27	72,41	2.457.039,91	163.859,32	6,67
8 - Variacion de activos financieros	25.724,39	10.476,50	40,73	52.713,27	11.568,75	21,95
9 - Variacion de pasivos financieros	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>39.453.145,84</b>	<b>36.800.833,30</b>	<b>93,28</b>	<b>39.944.878,40</b>	<b>35.530.746,60</b>	<b>88,95</b>

Beraz, aurrekontuaren burutze mailaren ehunekoa 2022ekoarekin alderatuz 4,33 puntu igo da.

## 5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKET A PORTZEN.
2014	12.000,00	0,00	0,00	12.000,00	0,00
2018	237,30	0,00	0,00	237,30	0,00
2019	3.566,81	0,00	0,00	3.566,81	0,00
2020	13.823,04	0,00	13.823,04	0,00	100,00
2021	80.775,77	0,00	80.775,77	0,00	100,00
2022	3.121.428,10	0,00	3.108.793,10	12.635,00	100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.231.831,02</b>	<b>0,00</b>	<b>3.203.391,91</b>	<b>28.439,11</b>	<b>99,12</b>

Ordaindu gabe dagoen saldoa 2024 urtean gauzatu edo baliogabetu beharko litzateke. Baliogabetzea, batez ere, 2014 eta 2018 urteetako bukaera saldoei aplikagarri izan beharko litzateke, preskripzioa dela eta.

## 6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZEN.
2008	383,86	383,86	0,00	0,00	0,00
2009	1.359,55	994,94	0,00	364,61	0,00
2010	3.747,52	495,49	0,00	3.252,03	0,00
2011	8.501,20	2.663,84	1.935,18	3.902,18	23,00
2012	11.077,82	6.350,60	520,04	4.207,18	5,00
2013	24.413,16	6.523,35	1.936,53	15.953,28	8,00
2014	49.524,67	20.008,19	1.888,57	27.627,91	4,00
2015	59.176,97	21.639,63	2.659,00	34.878,34	4,00
2016	924.510,55	30.762,36	2.916,30	890.831,89	0,00
2017	269.168,43	27.131,60	7.968,24	234.068,59	3,00
2018	176.551,33	8.544,68	11.038,24	156.968,41	6,00
2019	167.297,43	1.500,00	12.525,21	153.272,22	7,00
2020	327.720,42	0,00	18.937,76	308.782,66	6,00
2021	232.793,00	5.941,92	51.993,64	174.857,44	22,00
2022	4.414.131,80	19.062,03	4.095.664,59	299.405,18	93,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.670.357,71</b>	<b>152.002,49</b>	<b>4.209.983,30</b>	<b>2.308.371,92</b>	<b>63,11</b>


2028-2010 ekitaldietatik datozen kobratu gabeko saldoetan ikusten da ez del inongo kobrantzarik eman; bai, ordea, deuseztapen batzuk egin dira. Gainontzeko urteetako saldoak diru-bilketa prozedurari jarraituz kobratze bidean daude. Izan ere, ikusi daiteke ekitaldi guztietako zenbait zenbateko kobratu direla.

Kontuan izan behar da 24 hilabete baino antzinatasun handiagoko zenbatekoak kobraezintzat hartzen direla diruzaintza-gerakinaren kalkulurako eta gainontzeko zenbatekotik (2022-2023) ehuneko bat ere bai. Azken ehuneko honi dagokionez, aurreko ekitaldietako irizpide berdina mantendu da (likidazio espedientean dago jasota kobraezinen kalkulua).

## 7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





**Esp. kodea:** 2024RBAR0022  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS		
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024RBAR0022  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0100.226.912.00.02	GOBERNU ORGANOAK:FUNTZIONAM. GASTUAK	8.000,00	2.864,86
0200.221.330.00.05	KULTURA SAILA:PERTSONALAREN JANTZIAK	4.004,62	4.004,62
0200.226.334.00.00	KULTUR EKINTZAK	50.000,00	39.221,19
0200.226.338.00.06	JAIETAKO GASTUAK	60.000,00	60.000,00
0200.481.334.00.00	KULTURAKO DIRULAGUNTZAK:LEHIAKE TA BIDEZ	3.200,00	1.974,29
0200.481.334.01.00	KULTURAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZAK	2.320,00	0,00
0200.481.334.01.01	GOIKOBALU DIRULAGUNTZA	4.000,00	4.000,00
0200.481.334.03.00	HAUSPOZ ELKARTEA- AKOREDIO LEHIAKETA	5.000,00	3.000,00
0200.622.333.00.01	APRENDICES ERAIKINA- BIRGAITZE PROIEKTUA	370.381,72	0,00
0200.622.333.00.01	APRENDICES ERAIKINA- BIRGAITZE PROIEKTUA	791.442,69	628.511,78
0200.626.333.00.01	JUAN ARZAMENDI EKIPAMENDUA	183.864,48	183.864,48
0201.626.332.10.00	KULTURATEKO EKIPAMENDUA	11.988,94	11.988,94
0204.623.334.00.02	AMAIA ANTZOKIKO EKIPAMENDUA	75.000,00	8.577,64
0204.623.334.00.02	AMAIA ANTZOKIKO EKIPAMENDUA	895,67	895,67
0205.622.334.00.00	Akustikarako inbertsioak	35.000,00	0,00
0206.622.333.00.01	jame inbertsioak	25.000,00	0,00

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0022

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

0210.470.335.40.00	Goiena Komunikazio taldea. Digitalazioa	38.000,00	38.000,00
0400.226.231.82.00	GIZARTE INKLUSIOKO EKINTZAK	1.080,00	0,00
0400.480.231.00.00	OSASUN SAILEKO DIRULAGUNTZAK	8.384,60	8.005,34
0400.481.230.20.00	GKE	12.540,00	12.540,00
0406.480.337.10.00	HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO DIRULAGUNTZAK	16.370,42	14.558,95
0410.226.337.20.00	GAZTERIA:EKINTZAK	1.095,05	0,00
0410.227.924.00.07	Prozesu parte-hartzailea. 9-12 urte bita	12.000,00	5.983,45
0410.480.152.01.01	GAZTEEN ETXEBIZITZA ALOKAIRUAK LAGUNTZ.	1.500,00	1.500,00
0410.480.337.20.01	MAKETAK GRABATZEKO DIRULAGUNTZA	700,00	700,00
0411.622.337.21.02	LUDOTEKA ETA GAZTE TXOKO. INBERTSIOAK	27.000,00	3.854,81
0411.622.337.21.02	LUDOTEKA ETA GAZTE TXOKO. INBERTSIOAK	56.500,46	0,00
0415.625.231.20.01	EGUNEKO ZENTRUKO EKIPAMENDUA	16.988,17	16.988,17
0500.227.231.00.07	Genero ikuspegia txertatzeko proiektua	25.000,00	0,00
0500.601.134.00.00	BIDEGORRI LEINTZIBAR- FORUEN PZ	5.324,00	5.324,00
0500.601.134.01.01	ETXALUZE-MAALA EKOBOULEBARD	69.619,12	0,00
0500.601.151.00.01	ETXETXIKIAK. HORMAREN EGONKORTZE LANAK	175.000,00	18.465,77
0500.601.151.00.01	ETXETXIKIAK. HORMAREN EGONKORTZE LANAK	641.000,00	641.000,00
0500.601.151.03.00	UDALA GOIKOA URBANIZAZIOA	8.639,40	2.879,80

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0022

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

0500.601.153.22.00	ZALDUSPEKO URBANIZAZIOA	291.087,78	145.543,88
0500.601.491.00.00	ZUNTZ OPTIKOA ALDE ZAHARREAN	200.000,00	141.001,34
0500.642.151.00.00	ZERBITZU-SARI TEKNIKOAK	45.568,60	27.394,40
0500.643.150.00.01	PARTEHARTZE PROZESUA- GRUPO SAN JUAN	8.966,10	8.966,10
0500.643.153.20.01	J.L. IÑARRA. PROIEKTUA	62.920,00	15.730,00
0500.643.172.00.00	Landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko	8.855,86	2.312,92
0500.781.151.00.01	GAUTXORI ESPARRUA- HIRIGINTZA HITZARMEN	625.770,00	281.827,50
0501.601.134.01.01	IGOGAILUA GALIZIA-SANTA MARINA	260.000,00	207.502,51
0501.601.134.01.01	IGOGAILUA GALIZIA-SANTA MARINA	507.768,33	507.768,33
0510.601.170.00.01	ETXEZARRETA BERRESKURAPENARAKO EKINTZAK	85.000,00	907,50
0512.210.172.10.01	AKEI MANTENTZEKO ZERB.SUBKONT.	4.039,83	4.039,83
0514.622.172.30.00	GARAGARTZAKO ORTUEN INBERTSIOAK	2.226,40	2.226,40
0600.625.920.00.99	telefono zentralita berria	80.000,00	0,00
0600.626.920.00.00	Ekipamendu informatikoa	76.190,07	58.070,32
0605.209.925.00.00	desfibriladoreak	16.650,00	0,00
0605.227.925.00.07	desfibriladoreak - formakuntza	24.000,00	0,00
0700.226.431.00.01	KOMERTZIO AKTIBITATEAK	25.000,00	20.889,89
0700.471.430.00.01	Merkataritza eta turismo sekt. eskualdal	50.000,00	0,00
0700.471.431.00.01	TOKI MERKATARITZA SUSTATZEKO DIRULAG.	10.000,00	514,25

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0022

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

0800.202.165.00.00	GABONETAKO ARGITERIA- INSTALAZIOEN ALOKAI	50.000,00	21.725,62
0800.210.153.30.00	HIRI ALTZARIEN MANTENTZE ZERBITZUA	15.000,00	15.000,00
0800.210.172.01.01	ZUHAITZEN LANDAKETA	1.942,78	0,00
0800.212.150.00.00	Antenaren instalazioa_leku- aldaketa	3.363,80	3.363,80
0800.212.165.00.00	ARGITERIA PUBLIKORAKO EROSKETAK	2.947,56	0,00
0800.221.165.00.01	ARGITERIA PUBLIKOAREN ENERGIA	225.000,00	178.406,68
0800.227.165.00.07	ARGITERIAREN MANTETZ- AZPIKONTRAT.MANTENT	5.000,00	4.789,48
0800.421.441.10.00	GARRAIO AGINTARITZARAKO EKARPENA	5.400,00	4.783,53
0800.601.153.01.00	BIZKAIA ET.ESKAILEREN INGURUNEA SENDOTU	55.946,50	48.594,10
0800.601.153.20.00	ASFALTATUAK	200.000,00	0,00
0800.601.165.00.00	ARGITERIAKO INBERTSIOAK	17.528,73	17.528,73
0800.622.920.10.00	ZENTRO PUBLIKOETAKO ARGITERIA HOBETZEA	24.344,69	22.171,46
0800.623.153.40.02	GALDARAGINEN TAILER BERRIA	28.178,26	3.222,45
0800.623.153.40.02	GALDARAGINEN TAILER BERRIA	198.655,17	5.426,85
0800.624.441.00.00	Autobus berria	225.000,00	0,00
0800.643.150.00.01	SANTA TERESA BIRGAITZE PROIEKTUA BERRIKU	40.273,50	0,00
0801.622.431.20.00	AZOKAKO INBERTSIOAK	4.000,00	1.003,59
0801.622.431.20.00	AZOKAKO INBERTSIOAK	3.025,00	3.025,00
0802.601.337.00.01	Haur Parkeak	100.000,00	99.943,82
0804.221.153.40.00	BILTEGIA:FUNTZIONAMEN DU GASTUAK	5.000,00	5.000,00

<b>Kodea</b>	CL24/03478	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>CUDO</b>	000.0055.AAA1ASRV.K.RZiS			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ASRVK.RZiS</a>			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0022

Gaia: 2023ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

0804.221.153.40.11	BILTEGIRAKO EROSKETAK	5.000,00	5.000,00
0805.221.161.00.02	PARTZUERGOA-UR HORNIDURA	100.000,00	97.414,32
0805.601.161.01.00	FIBROCEMENTO GARAGARTZA	147.953,86	34.271,85
0805.623.161.00.01	UR HORNIDURA ZERBITZUAREN MODERNIZAZIOA	30.000,00	4.506,63
0805.623.161.00.01	UR HORNIDURA ZERBITZUAREN MODERNIZAZIOA	32.280,00	32.280,00
0805.725.161.00.00	AZPIEGIT.KANONA:UR PARTZUERGORAKO INBERT	4.755,41	4.755,41
0808.601.133.00.00	BIDE PUBLIKOETAKO SEINALIZAZ.INBERTSIOAK	100.000,00	7.272,10
